



nuari eta, batez ere, txuleta eder bati inor askok esan zien ezetz.

JON URBE | ARGAZKI PRESS

San Anton egunean, Astigarragan sagardoa, eta Getarian, noski, txakolina

GARA

GETARIA

Gauzak nola diren, aurten pare-parean tokatu dira Astigarragako sagardoaren jaia eta Getariako txakolinarena. Zintzurra gustura bustitze-ko aukera pareta eta paregabea, beraz. Getariakoia beti izaten da urtarrilaren 17an, San Anton egunean. Astigarragakoia, berriz, buelta horretan, betiere San Sebastian

egunaren bezperetan. Aurten egun berean egokitu dira bi hitzorduak.

Giro paregabean ireki zuten ofizialki atzo Getarian txakolin uzta berriaren denboraldia. 1.500 bat botila ireki zituzten goiz-partean, Getariako Txakolina Jatorri Izendapenean izena emanda dauden 17 upeltegietakoak guztiak. Eta edariak jatekoa eskatzen duenez, hori ere kategoriakoa

prestatu zuten: Getariako antxoa eta atuna, egarri puntua sortzeko aproposak.

Aurtengo Mahasti Jaunak izendatzeko parada ere eskaini zuen ohiko bihurtu den egitarauak. 2007 hasi berri honetakoak Martin Berasategi eta Hilario Arbelaitz sukaldariak izango dira, txakolinaren alde egindako lana eskertze aldera. Bertsoak, berriz, Andoni Egañaren eta Sebastian Li-

zasoren kontu joan ziren; horiek ere urterokoak dira Getarian.

Aurten, 1557.000 litro ekoitzi dituzte Jatorri Izendapen horrekin, bi milioi botilatik gora. Oinarriko merkatua Gipuzkoan dauka Getariako Txakolinak, bertan saltzen baitute ekoizpenaren %75. Baina Euskal Herri-
tik kanpo egina du bidea, eta Europar Batasuneko txoko askotan ezaguna dute.



Jende andana bertaratu zen Getariara lehen txakolin tragoxka hartzeko.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS